

**ZENBAT BURU**  
Maider Elustondo


**ERREPORTAIA**  
Hasi da  
ikasturte berria!

**GENICARRIA**

# BARRREN

1998ko irailaren 18a  
V. urtea - 248. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## ESKOLARA!

“Hurrek ez dituzte aholkuak entzuten baina adibideari kasu egiten diote” San Bosco

# HIZKUNTZ

Trailetik hasita 98-99 kurtsoko matrikula zabalik


# SOLUZIOAK

In l s, l m n t Fr nts s

- M l uzt k
- Ttulu fz l k
- Es r ntz ut n t rrzk r k sl k
- Tl murrztu k
- Itzul n t nt r r t z z r tzu k
- Ik st r k tz rr n



IN UST Y  
L NGU GE  
SE VICES



Mi Eri kuz 3n k uz l K37 En l s 35-1 37 -Fx 37 1 5 E2 7-El r G uz l



San Roke auzoa, 5 • Tel: 943 74 25 95

Aterpe tabernakook

ESKERRAK

eman nahi dizkizuegu jaie-

tan gure artean

ibili zareten guztioi.

Honekin batera,

taberna berriz ere

ZABALIK dagoela

jakinarazi nahi dizuegu.

## Behar dugulako, egingo dugu



MAIDER  
ELUSTONDO

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Orain dela 20 urte ekinaren ekinaz egindakoa, egun batetik bestera, baliagarritzko arrazoirik gabe, eta izugarritzko muntaia polizialaren laguntzaz, itxi digute.

Konturatuko zineten bezala, EGIN egunkaria eta EGIN irratia buruz ari natzaizue. Bi hilabete eta erdi igaro dira goizero goizero Euskal Herriko kioskoetan EGIN falta denetik. Demokraziaren izenean itxi dutela diote, eta nik ezetz diot, demokrazia justu aldrebes dela, pluraltasuna, ikuspegi desberdinak, aukera eskubidea, interpretazio desberdintasuna, iritzi kontrajarriak... Osagarri hauek gabe ez dago adierazpen askatasunik, ez dago demokraziarik, eta osagarri hauen izenean badirudi ez dugula berriz EGINik edukiko.

Betiko faxistek ez gaituzte ixilduko eta orain dela 20 urte bezalaxe, herritar guztion laguntzaz berria egingo dugu. Ezin gaituztelako ahotsik gabe utzi: EGIN emakumeen mugimendua eta emakumeok dugun errealitatearen ahotsa izan da. EGINen bitartez gazte dinamika ezberdinak ezagutu ditugu. Ikasleen behar, esperantza eta proiektuen berri jakin ahal izan dugu. Langileen eskubideak eta aldarrikapenak plazaratzeko tresna izan da. EGINek ingurugiroarekiko tratamendu zabal eta sakona eduki du beti, zapal dutako gizarte, eta bidezko borroka guztientzat bere lerro eta orrialdeak zabalik eduki ditu. Intsumisioaren alde, euskara eta euskaldunon eskubideak aldarrikatuz, homofobiaren aurka, sektore marginatu eta kultura minoritarioen ahotsa izan da beti.

Ezin ditugu ahots hauek guztiak ixilik utzi, hori nahiko lukete beraiek, Espainia be-

rriro lehenera etor dadin. "Una, grande y libre!". Ez dago "Viva Franco!" oihukatu beharrik, "Arriba España!" orduko eduki bera-ekin sentitzen bada.

Espainian ia inork ez du kuestionatu ere egin EGINen itxiera, eta hori gertatzen da ia inork ez duelako benetan ezer jakin nahi Euskal Herriaren arazoez. Interesatzen zaien gauza bakarra Espainia baturik edukitzea da. EGINen itxiera gertatzen zen egun beretsuetan informatibo guztietan albiste nagusi gisa aurkeztu zuten Espainiako bilobaren jaiotza. Hori bai ezagutu nahi dute, detailerik txikie-nean, ea umeak kaka egin duen edota biberioa zenbat aldiz edan duen informatuz. Baina horrek ez die lotsarik ematen. Agintariek nahi dutena egin dezakete, Estatuko komunikabide boteretsuenak edozein gauza justifikatzeko gai baitira eta euskararekin eta Euskal Herriarekin loturik badago, are gehiago.

EGINen itxiera Euskal Herriaren aurka-ko estrategia baten barruan ulertu behar dugu, oraingoan EGIN egunkaria eta EGIN irratia tokatu zaie baina, zein izango da hurrengoa? Beharbada Herri Batasuna izango da baina AEK, Amnistiaren Aldeko Batzordeak edo euskal usaina duen edozer edo edozein izan daiteke, ez baitugu ahaztu behar EGIN egunkariko zuzendaria zen Jabier Salutregi gartzelan aurkitzen dela, eta egunkariko 300 langileak langabezia.

Euskal Herrian inoiz ez gara ezer egin gabe exerita geratu, lehen aipatu dudan bezala eta orain dela 20 urte bezalaxe, herritar-ron laguntzaz egingo da, 1.000.000.000 (mila milioi) pta. "bakarrik" behar dira, eta euskal egunkari berri bat egingo dugu.

## Barrak, Birrak eta Barreak





**Nafarroa enparantza, 2**  
**20870 ELGOIBAR**  
 ☎ **943 74 41 12**  
**Publizitatea:**  
 ☎ **943 74 37 04**  
**Faxa: 943 74 37 04**

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miren Moreno

## MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

## GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidier Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Iñaki Raigoso, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
 Jaurlaritzako Kultura  
 Sailak eta Foru  
 Aldundiak diruz  
 lagundutako  
 aldizkaria.*



## Elgoibarko elkartasuna

**H**onako agiri hau sinatzen dugu-  
 Enok, ondorengo arrazoiengatik  
 Egin egunkaria eta Egin irratia gure  
 elkartasuna adierazi nahi diegu:

Administrazio Kontseilu bateko  
 kide batzuri leporatutako balizko deli-  
 tuengatik komunikabide bat ixtea ez  
 dela bidezkoa irizten dugu, pertsona  
 fisiko batzuen ustezko jardunak eta  
 komunikabidearen funtzionamendua  
 bereiztu behar baitira.

Adierazpen askatasuna giza esku-  
 bide bat izanik, komunikabide hau ix-  
 teko erabakiak giza eskubide hori ez  
 errespetatzea dakar, hainbat eta hain-  
 bat pertsonari informazioa jasotzeko  
 bide bat itxi zaiolako.

Horrelako neurri larriek gatazka  
 eta tentsio giroa areagotu besterik ez  
 dute egiten.

### Sinatzaileak:

**Geu Gasteiz** aldizkaria (Gasteiz)

**Galtzaundi K. E.** (Tolosa)

**Goibekokale** aldizkaria (Elgeta)

**Txintxarri** aldizkaria (Lasarte-Oria)

**Ttipi-ttapa** aldizkariko eta

telebistako langileak (Nafarroa)

**Deiadar** aldizkaria (Gernika)

**Irutxulo** aldizkaria (Donostia)

**Maxizatzen** aldizkaria (Azkoitia)

**Eraz** aldizkaria (Durango)

**Goierritarra** aldizkaria (Goierri)

**Berton** aldizkaria

**Berrigara** aldizkariko langileak

(Bergara)

**Drogeteniturri** aldizkaria (Ermua)

**Noaua!** aldizkaria (Usurbil)

**Aiurri** aldizkariko langileak (Beterri)

**Guaixe** aldizkariko langileak

(Sakana)

**Bizarra Lepoan** aldizkaria (Getxo)

**Eta kitto!** aldizkaria (Eibar)

**Barren** aldizkariko langileak

(Elgoibar)

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.  
 Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.  
 Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

◆ Emakume batek ondorengo galdera egiteko eskatu digu. **Mintxetako atzeko aldean zelai handi bat dago eta entzun izan dut bertan igerilekuak egiteko asmoa dagoela.** Gaur egun Debako hondartzan aparkatzea gero eta zailagoa da eta trena ere oso masifikatua dago. Elgoibarren igerilekuak egongo balira herritar asko bertan geratuko ginatke. Beraz, **noiz egingo dira igerilekuak?**

Udal Kirol Patronatutako zuzendariak erantzun hau eman digu: “Emakume honek dion bezala, **lur sail horretan igerilekua egitea aurrikusita dago** eta egia esan, proiektu bat ere badago. Baina errealista izanik, **momentu honetan Elgoibarko Udal Patronatuaren lehentasunen artean ez dago igerilekurik egitea.** Gainera, ez dugu ahaztu behar kirol instalakuntza aldetik oso ondo hornituta gaudela. Urte batzuk barru, Udalak erabakiko balu Elgoibarrek igerilekua behar duela proiektua martxan jarriko litzateke, baina momentu honetan ez dago inongo asmorik”.

## KEXAK

◆ **Ikastolako lau neska etorri dira herri honetan futboleko jokatzeko lekurik ez dagoela salatzen.** “Elizako arkupietan ibiltzen geranian jendiak juteko esaten digu norbait joko dugula esanez. Leku-Ederren ere umeak egoten dira eta ezin leike baloiakin jolastu eta Madalako parkian debekatuta dao. Gure ikastetxean entrenamenduak egoten dia eta beste ikastetxietara ezin gera jun bertakua ez gerlako. **Nun ibili gaitzke orduan futbolian?”**

## TXALOAK

◆ **Aita-seme batek Karakateko iturria konpondu duena txalotu nahi du.** “Joan den igandean, hilak 6, Karakate aldera joan ginen eta iturria konponduta zegoela ikusi genuen. Ederki etorri zitzaigun egun hartan bero handia egin baitzuen. Beraz, eskerrik asko iturria konpontzeagatik”.

## B AI, E S A N ?



**Jose Manuel Herrero**

PSE-EEko zinegotzia

Politika munduan urak haundi datoz aspaldian. Albistegietako arduradunak ere pozik egongo dira, azken aldiak ez baitago gai faltarik; Barrionuevo eta Veraren gartzelaratzeta, Lizarrako Ituna, PP eta PSOEren arteko liskarrak, Hauteskunde Autonomikoak,... Gaiak nahi beste daude, eta hauei buruzko iritzia eskatzeko **PSE-EEko Elgoibarko Udaleko zinegotzia den Jose Manuel Herreri** deitu diogu. Izan ere, PSOE saltsa gehienetan dago sartuta.

- **Barrionuevo eta Veraren gartzelaratzearekin has gaitzke. Zein da zure iritzia?**

- Presio politiko-mediaticopean burutu den prozesu baten emaitza izan da, gartzela zigorra ezartzen duen sententziarekin amaitu dena. Guk men egin diogu sententziari, baina horrek ez du esan nahi guretzat Vera eta Barrionuevo errudunak direnik. Errekurtsoek hori baieztatzea espero dugu.

- **ETAren aurka ‘edozerk balio duen’ iritzikoa al zara?**

- Zuzenbidezko Estatu Demokratiko batean onar daitekeen guztiak balio du ETAren kontra. Azken finean Zuzenbidezko Estatu horixe da: delinkuentziaren aurka aplikatutako legalitatea.

- **Gaiz aldatuz, Lizarrako Akordioa gaitzetsi egin dute PPK eta PSOEek. Zergatik? Gipuzkoako PSE-EEtik errespetuzko iritzirik ere entzun da.**

- Planteamendu abertzale partzial batetik abiatzen delako eta armen xantaipean ezin daitekeelako negoziatu. Literatura ekin-tzetan amaitzen dela ikusten badugu eta Bakea posible dela, Ajouria-Eneko mahaian topatuko gaituzte. Honek izango duen bila-kaerari irekiak gaude gipuzkoarrak.

- **Hauteskunde atarian egoteak mesede ala kalte egingo dio egungo giro politikoari?**

- Hauteskundeek aurrez aurre jartzen ditu jarrera politikoak eta biztanleen esku dago erabakia. Oportunismoa kalterako da, engainatu egiten duelako. Jarrerak argi edukitzea, berriz, onuragarria da.

- **Nola ikusten dituzu urriaren 25eko hauteskundeak?**

- Sozialistetzako itxaropen handiarekin. Sondeo guztien arabera gorantz egingo dugu. Gure nahia partehartze handia egotea da.



● ● ● **ALDERDI EGUNA 98** ● ● ●

*EAJ-PNVk jelkide eta lagun guztioi Salburua/Gasteizen, irailaren 20an ospatuko den Alderdi Egunerako gonbita luzatzen dizue. Autobusak antolatu ditugu.*

Izena emateko: Foruen enparantza, 4 • Tel: 943 74 27 44

# Hasi da **KURTSOA!**

**1998-99 ikasturtea hasi berri da. Oporraldi luze baten ostean, irakasle, guraso eta ikasleentzat iritsi da berriz ere liburu artean orduak eta orduak pasatzeko garaia. Elgoibarko ikastetxeetan 2 eta 16 urte bitarteko 1.200 haur inguruk hasi dute 98-99 ikasturtea. **BARRE**Nek, adin horretako ikasleek ikasturte hasiera nola bizi duten jakin nahi izan du eta erantzunak era guztietakoak izan badira ere, eskolako atean negar gehien egiten duten txikiak dira gero gutxien kexatzen direnak. Halere, egia da guztioi kostatzen zaigula neguko hotz eta euriekin batera egunerokotasunean murgiltzea.**



**S**an Bartolome ikastolako Haur Eskolara iritsi ginenerako haur gehienak gelan zeuden. Bakar bat edo beste amari eskutik helduta motel-motel ari zen hurreratzen, eskolarako bidea amaigabea balitz bezala, edo eskaile-rak gora geratzen zen txokora sekula ailegatzetik nahiko ez balu bezala. Halere, gelan sartu orduko ikuspegia oso bestelakoa zen. Hiru urte dituzten neska-mutilekin izan ginen eta hauen aurpegian ez zen ez negarrik ez tristurarik antzematen. Aitzitik, auto eta bizikleta gainean zeuden batzuk, beste batzuk etxe txiki batean sartuta jatekoa prestatzen jolasean... Guztiak garrasi batean, barre eta algaraka.

Idoiak hiru urte ditu eta berak esan digunez gustura joaten omen da eskolara, “lagunekin jolastera eta haundixa naizenian erizaina izateko ikastera”. Asierrek eta Albertok oporrak oso ondo pasa dituztela azaldu digute, “Benidormen egon naiz eta hondartzara jun gera”. Albertok, gainera, gauzak oso garbi ditu.

Izan ere, bera, dagoeneko, “medikua” da eta bizitza osoan jolastu baino ez du egin nahi. Ibareri atenezioa deitu zion grabadorak eta botoiei sa-

katu eta sakatu aritu zen, grabatutakoa nola entzuten zen harritut ikusiz. Buila eta zalaparta demasekoa zen eta gehienek batere negarrik ez zutela egin esan ziguten, “neska haundixak gera eta”. Ibarek, gainera, nobioa du “Alberto da nere nobixua eta beti egoten gera batera jolasten”.

Edozein modutan, hiru urteko neska-mutil hauentzat, eskolara joatea lagunak egin eta egunean hainbat orduz gurasoengatik aparte jolastu eta jolastu ibiltzea da. Hasieran negar egiten badute ere, berehala murgiltzen dira hainbat eta hainbat jolas koloretsutan etaahaztu egiten zaie zer den eskola eta zer den ikastea. Hauentzat, bizitza jolasa da.

## **Ikasturte eta ikastetxe berria**

Ordubete beranduago igo ginen Herri Institutura. Giroa oso bestelakoa zen. Goizeko 11:00etan zuten aurkezpena eta hamar minutu lehenago sarreran pila-tuak zeuden dozenaka neska-mutil. Hantxe joan ginen, kamera eta grabadora eskuan hartuta, 12-15 urte bitarteko gazteek ikasturte hasiera nola bizi duten jakin nahirik. Iratxek 12 urte ditu eta Herri Eskolatik Herri Institutura pasa da aurten. Esan digunez, “ikasturte hasiera izateaz gain, eskola berria ere estreina-tzen dut eta iruditzen zait kurtsoa zaila-go izango dela”. Iban ere 12 urteko mutikoa da. Honen hitzetan, “oporrak luzeegiak dira eta gustura hasten naiz eskolan, lagunak ikusi eta abar”. Hori bai, ikastea ez omen zaio gehiegi gustatzen, “gauza bat lagunekin jolastea da

***“Hasiera ez dago gaizki baina berehala aspertzen zara liburu artean”.***

eta beste bat azterketak egitea". Bazter batean eserita zegoen mutil talde baten iritzia jasotzeko asmotan abiatu ginen. Lehenengo, guztiek alde egin zuten, inork ez zuela ezer esan nahi, ez argazkian atera. Baina azkenean, Haritz animatu zenean, gainontzeko guztiak gerturatu ziren lagunak esan behar zituenak entzun eta euren hitzak gehitzera. Haritzek 14 urte ditu. Bera ez omen da batere gustura hasten eskolan, "nik nahixao dot oporretan egotia. Goizian hain goiz jaiki biharra asko kostatzen jata. Gero, klasiari aspertu eta lo hartzen dot". Ikasturtea hasteak ezer onik ez al duen galdetu diogu Haritz eta azkenean, baina ahopeka, "neskak!" aitortu digu. Tira, ez da, ez, arrazoirik txarrena eskolan ganoraz hasteko. Liburu artean irakasleei begira egotea aspergarria eta astuna egiten zaien arren, He-

rri Institutuko sarreran urduritasuna eta irribarra ziren nagusi. Ikasturte hasieraren beste aurpegi bat, ezta?

### Motxila prestatzen hasteko ilusioa

Pilar ikastetxera iritsi ginenean 12:30ak inguru ziren eta guztiak etxerantz zihoazen, bazkal-tzera. Patioan neska-mutil koadrila pare bat harrrapatu genituen eta une batetik bestera inguratu egin gintuzten. Guztiek zuten zer esanik, guztiek nahi zuten argazkian atera. Horrelako borondatea ikusita, galdezka hasi ginen. Maitanek 9 urte ditu eta bere ustez klasean has-tea "polita da, ze gauza asko ikasten dituzu". Gehienek aitortu zigutenez ilusioz hasten dira irail hasieran "opor luzee-gieez aspertuta" motxila eta liburuak prestatzen. Halere, esaterako Ionek, 8 urtekoa berau, "irakasleak gaiztoak" di-rela esan zigun, "zigo-tu egiten gaituzte eta guk ez dugu ezer egiten. Gertatzen dena da ez gaituztela ulertzen". Aingeruk 14 urte ditu eta berari eskolan hastea gus-tatzen zaio, "irakasle



berriak ezagutzeko", baina "lehenen-go egunak pasau orduko berehala aspertzen omen da.

Une hartan 16 urteko gaztetxoak ikusi genituen ateratzen eta haiengana joan ginen. Esan zigutenez, "hasieran gogorra da, ze irakasle berriak daude eta ez dakizu nolakoak izango diren". Raulek tristuraz hartzen omen du iraila, "oporren amaiera delako eta klasean hasten garelako". Ikasten dutenak zerbaiteko balioko diela uste dute nahiz eta bat edo bestek, Julenek adibidez, hainbat ikasgai alferrik daudela esan, "fisika, hizkuntza eta abar. Gimnasia bezalako errazak izan behar-ko lirateke denak!". Halere, aurrera begira zer egin edo ikasi nahi duten galdegin genienean inork ez zuen erantzuten jakin. Ea geratzen zaizkien urteetan euren norabidea zehazten duten. Bitartean, irail hasiera aldera, behin eta berriz ikasturte hasiera bizi beharko dute.



## Kurtso hasiera irakasle baten ikuspuntutik

**I**ritsi da dagoeneko ikasturte hasiera. Nire kasuan, gainera, herri berri bat, ikastetxe berri bat, gela berri bat, lankide berriak eta, nola ez, ikasle talde berria.

Kurtsoarekin batera erlazio berri pilo bat hasiko dira. Alde batetik laneko lagunak. Oraintxe ezagutu eta hamar hilabetetan zehar ahalik eta gehien hurbildu eta gure arteko harremanak estutzen saiatuko gara elkarlanean; gero, agian, berriz elkar ikusiko ez dugun arren.

Beste alde batetik, 170 ikasle

berri, izen eta abizen berriak, aurpegi berriak eta, baita ere, 170 pertsona eta izaera desberdin. Lehenbailehen horiek guztiak eza-gutzen saiatu behar gara eta ba-koitzak duen maila kontuan har-tuz, guztien neurrira egokitutako materiala prestatzen hasi beharko dugu eta, nola ez, prestatutako programa aurrera eramaten (hori dio behintzat informeak!).

Hala ere, eta aurretik esandako guzti-guztiak egiak diren arren, ezin inondik inora kexatu. Azken batean, hemendik eta datorren

udara bitartean lanean jarraitzeko aukera daukat eta ez da gutxi. Ge-ro, ikusi beharko zer datorren!

**ALAZNE  
REMENTERIA  
Irakaslea**



# Ba al duzu gripearen kontrako txertoa hartzeko asmorik?

## OHARRA:

Inprentako hutsegite baten ondorioz, aurreko astean oker agertu ziren inkestaturen izen-abizenak. Barkamena eskatu nahi dizuegu irakurleoi eta, bereziki, bertan azaltzen zineten herritarroi.



**JOSE M. OÑEDERRA**  
63 urte, jubilatua

Behin hartu naban bakunia baina oin 65 urterarte ez dauanez... Banakan asmua ze oin dala hiru urte edo gripe haundixa hartu naban.



**EUSEBIO GIL**  
84 urte, jubilatua

84 urte dakadaz eta oin arte ez dot griperik hartu. Gogorra izango naiz itxuria! Hala ere, igual aurten juango naiz bakunia ipintzera.



**MARINA LINARES**  
64 urte, etxeakoandrea

Behin hartu nuen, duela lau urte eta katarro gutxiago izan nituen. Gainontzean ez dut hartu, asti faltagatik. Aurten amarekin joango naiz eta nik ere hartuko dut.



**ENCARNACIÓN MORA**  
54 urte, etxeakoandrea

Ez dut sekula hartu baina neumonia pasatu izan dut eta komeni zait. Hala ere, ez dut griperik izan, eta hartuko banu, sendatu eta kitto.



**ANTONIO ALBIZU**  
68 urte, jubilatua

Hartu izan det tailarrian nauanian baina aspaldiko partez ez dot hartu ze hartzen nabanian ez nitzan ondo sentitzen. Ostantzian ere nahikua konplikazio badakat.



**MARIA VALENCIANO**  
77 urte, etxeakoandrea


Griperik ez dut inoiz hartzen beraz, zertarako hartu txertoa? Osasun ona daukat. Lagunek hartzen dute baina gero katarroa kendu ezinik ibiltzen dira.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



MEKANOSA

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Pedro Muguruza 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



# ISPILUARI BEGIRA



*Ruth Tindategikoa*

**RUDITH tindategikoa**

- **Zein kolorez ikusten duzu bizitza?** - Berdea.
- **Eta etorkizuna?** - Urdina. Nahiko optimista naiz.
- **Zure bizitzako zein gertaera ilun sartuko zenuke garbigailuan?**
  - Orain dela hilabete gertatu zen aitaren heriotza.
- **Zein kolore jazen duzu pozik esnatzen zarenean?** - Beti jazen ditut kolore ilunak.
- **Nori garbituko zenioke ahoa xaboiak?**
  - Aznarri.
- **Zein egoerak lagatzen zaitu "plantxatua"?**
  - Nahiko lasaia naiz eta gauzek ez didate gehiegi eragiten.
- **Egoera tentso bat leuntzeko erarik onena?**
  - Eztabaida dagoenean onena alde egitea da.
- **Non izan zara oporretan?**
  - Aurten ez ditut oporrik izan.
- **Beraz, ez zenuen iraileko depresiorik izango, ezta?** - Ez dut sekula izaten, oporretatik bueltan pozik hasten naiz lanean.
- **Zer desinfektatuko zenuke mundutik?**
  - Gosea.
- **Eta zein bitamina ziztatuko zenioke?** - Poza.
- **Garbigailua bidaiatzeko makina balitz, zein garaira joango zinateke?**
  - Lehen aldira, XIX. mendera edo.
- **Noren kontzertua ikusiko zenuke gustura?**
  - Alejandro Sanz-ena.
- **Zein pelikulako protagonista izan nahi zenuke?**
  - Kevin Costner-ekin edozein pelikula egingo nuke.
- **Zein adjetibo erabiliko zenuke zure burua deskribatzeko?** - Beti aurrera egiten duen pertsona izaten saiatzen naiz.
- **Zein galderaren erantzuna izan nahi zenuke?**
  - Noiz hilko naizen nahi nuke jakin.
- **Erosten al duzu loteria?**
  - Ez. Gainera, tokatuko balitzait ere ez nuke bizitza gehiegi aldatuko, lana behintzat ez nuke lagako.



Trenbide kalea, 23 Tel: 943 74 20 67

## CASANUECES

Eskulan ikastaroak  
Ordutegia: goizez 9:30etik  
13:00etara  
Arratsaldean 16:00etatik  
20:30era  
Astearte eta  
Ostegunetan  
ordutegi zabalagoa  
14:00etatik 20:30era

## ● Katekesia hilarren 28an hasiko da

Elgoibarko katekistek adierazi digutenez, hil honen 28an, astelehena, Kristaui-kasbideko klaseak hasiko dira Ubitarteko egoitzan. Ordutegia honako hau da maila bakoitzaren arabera: Seigarren mailakoak astelehenean 18:30ean. Bosgarrenekoak astelehenean 17:30ean. Laugarrenekoak asteazkenean 17:30ean. Hirugarrenekoak ostiralean 17:30ean. Bigarren mailakoak asteartean 18:00etan. Lehen mailakoak asteartean 17:30ean.

## ● IMSERSOren bidaiak nagusientzat

1998/99 denboraldirako opor programa kaleratu berri du IMSERSOk. Pentsionistek, alargunek eta jubilatuek dute opor programa honez gozatzeko aukera. Urtero bezala Salou, Alcoceber, Benidorm, Canarias eta Portugallera bidaiak antolatu dira, eta hauez gain, hainbat zirkuito kultural eta bainuetxeetan egonaldia. Izena emateko 900 43 43 43ra deitu edo Eibarko erresidentzian galdetu.

## ● Haizea Emakume Taldea berri martxan

Asteartean, hilak 22, Haizea Emakume Taldeak ikasturte berriari hasiera eman dio. Kolektibo honek herriko emakume guztiei dei egiten die arratsaldeko 15:00etan Pedro Muguruza-ko ikastetxean duten egoitzara joan daitezten.

## ● Marrazki Lehiaketako lanak jasotzeko epea

San Bartolome jaietako Umeen Egunean Marrazki Lehiaketan parte hartu zuten haurrek euren marrazkia jaso nahi badute, Kultur Etxera joan daitezke (11:00-13:00).

## Donostiako Gotzaindegiak Sigmako eliza erosi du 12 milioiren truke

Eliza Sigmako langileen jabetzakoa zen

Sigma auzoko eliza, Sigma enpresako langileen jabetzakoa zena, 12.100.000 pta.ren truke eskuratu du Donostiako Gotzaindegiak. Eraikin honen ezaugarri bereziak eta tamaina direla-eta, langileek pen-tsatzan zuten ez zela erraz salduko. Baina itxura denez, 'Testigos de Jehová' erlijio talde bat langileekin harremanetan jarri zen eliza erosteko asmotan. Berri hau auzotarren belarrietara heldu bezain pronto Udaletxera jo zuten, ordura arte katolikoek erabilitako leku bat beste erlijio batekoak erabil zezaketeen kezka azalduz. Donostiako Gotzaindegiak notizia ezagutu zuenean, konponbide bat proposatu zuen. Lehendabizi, Gotzaindegiak 1.000.000 pta. aurreratu zituen eta uztailaren bukaera aldera, langileen eta Gotzaindegiaren arteko salerosketa burutu zen, Gotzaindegiak gainerako 11.100.000 pta. ordaindu zituelarik.

Sigma itxi zenean, enpresako zuzendaritzak hainbat diru laga zion zorretan langilegoari. Zorren zati bat kitatzeko, Sigmako makinaria, zenbait etxebizitza eta



beste zenbait hondasun, eliza tarteko, langileen eskuetan geratu zen. Azken urteotan hondasun hauek saltzen aritu dira, nahiz eta salmenta nahiko motela izan eta urte asko behar izan dituzten ia dena saltzeko. Jakin dugunez, oraindik Madrileko etxe bat eta Ekonomatoa zegoen lokalaren zati bat daude saldu gabe. Hala ere, Madrileko etxearen jabetza norena den erabakitzeko dago, Granadako langile batzuek ere enbargatu baitzuten Sigmarekin zuten zorra kitatzeko asmoz. Azken hitza epaileak dauka.



## EGINen itxiera salatzeako plataformaren aurkezpena

Argazkian agertzen diren herritarrak EGIN egunkariaren eta irratiairen itxiera salatzeako elkartu ziren asteartean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Plataforma honen aurkezpenean, Jaso Oso kazetariak komunikatu bat irakurri zuen. "EGINen itxierarekin Euskal Herriko sektore zabal bat komunikabiderik gabe geratu da. Beraz, Adierazpen Askatasunak ez bakarrik boteretsuentzat, Euskal Herriko sektore aurrerazale eta abertzaleentzat ere errealitatea izan behar du praktikan, ez ustezko deklarazioetan". Plataforma honen aurkezpena EGINen proiektu berriaren aurkezpen-kanpainaren lehen ekitaldia izan da.



## Sekula izan den jendetzarik handiena 'La Polla' ren kontzertuan

Gazte Asanbladak antolatutako 'La Polla' musika taldearen kontzertuan sekula baino jende gehiago izan zen. Esan digutenez, 1.030 bat ikusle elkartu ziren joan den ostiralean Evaristo eta bere taldekideak zuzenean ikusteko. Kontzertuaren publizitate handiegia egin ez bazuten ere, Gaztetxeko kontzertuetan sekula izan den jendetza handiena batu zen. Izan ere, errekorra hautsi du emanaldi honek. Argazkian ikus daitekeenez, 'La Polla' zaleek izugarri disfrutatu zuten kontzertuan. Askok eta askok han ibili ziren abestien letrak kantatzen eta batera eta bestera saltoka.

## 7,5 kiloko lupinal

Begira zer nolako lupina ederra hartu zuen Deban Angel Mari Azpiazu elgoibartarrak joan den domekan. Arrainak 7,5 kiloko pisua du eta laguntza behar izan zuen kainabera uretatik altxatu ahal izateko. 35 urteko elgoibartar hau sarritan joaten da arrantzara baina esan digunez, sekula ez du horrelako pieza ederrik hartu. Lupinarekin zer egin duen jakin nahiko duzue, ezta? Ba, etxeok oso arrainzaleak ez direnez, jatetxe bati saldu zion.



## ● Lapurretak izan dira herriko bost enpresatan

Aurreko asteburuan, ostiraletik zapatura bitarteko goizaldean, Elgoibarko bost enpresatan lapurretak izan ziren. Udaltzaingoko sargentoak esan digunez, "Olasoko bi lan-tegitan eta Deba kaleko beste hirutan lapurren bisita izan zuten. Ateak gogor bortxatu zituzten eta itxura denez diru bila joan ziren, bestelako materialik ez baitzuten eraman". Dena den, badirudi lapurrek ez zutela dirurik topatu eta besterik gabe alde egin zuten. Sargentoak azaldu digunez, "aspalditik dakigu badagoela inguruetako enpresetan sartzera dedikatzen den lapur talde bat. Zelatan ibili izan gara, baina oraindik ez dugu emaitza positiborik lortu". Asteburu berean, Elgoibarren ez ezik, Ermuko enpresetan ere lapurretak egon ziren. Herriz herri ibiltzen omen den taldea da, lapurreta egin bezain pronto alde egiten dutenak, "horregatik kanpokoak diren susmoa dugu". Gogora dezagun duela zenbait hilabete Elgoibarko zenbait kirol dendatan lapurrak sartu zirela. Sargentoaren ustez, "arlo ezberdinetan ezpezializatutako lapur taldeak daude eta herriz herri ibiltzen dira".

## ● Langabetu eta emakumeentzako ikastaroak

Udal Ongizate Sailak langabetu eta emakumeei zuzenduriko hainbat ikastaro antolatu direla aditzera eman nahi du. Eraikuntzarako Heziketa Institutuaren eskutik, igeltsaritza eta burdingintzari buruzko bi ikastaro izango dira langabetuentzat. Izena emateko 943 35 33 15 edo 35 79 09 zenbakietara deitu hilaren 22a baino lehen. *Emakume* Elkarteak, berriz, Geriatria eta Klinika Laguntzaile ikastaroak antolatu ditu urrirako. Hilaren 25a baino lehen 943 45 40 14 zenbakira deitu izena emateko. Bestalde, *Gizalde* erakundeak hainbat ikastaro antolatu ditu interesa duen pertsona guztientzat. Azaroan bi ikastaro hasiko dira: bata enkofratzaile ikastaroa eta bestea armairu eta sukaldeko altzari muntatzaile ikastaroa. Izena emateko epea hilaren 21etik urriaren 21era bitartekoa da. Informazioa nahi izanez gero edo izena emateko telefonoz deitu 943 47 33 64 zenbakira.

## ● 1998ko hiri eta nekazal ondasunen zergak

Udal Artekaritza Sailak bidalitako oharren arabera, 98ko Hiri eta Nekazal Ondasunen zerga eta Aktibitate Ekonomikoen zergak borondatez ordaintzeko epea azaroaren 15ean amaituko da. Helbideratu gabe dutenei helbide fiskalera bidaliko zaizkie. Erreziboa iritsi bezain pronto, Kutxa, Euskadiko Kutxa, BBV, Banco Guipuzcoano, Central Hispano edo Udal bulegoetara zuzendu. Helbideratutako erreziboak zergadunak esandako kontutik kobratuko dira. Epea amaitu ondoren, %20 gehiago, atzerapen interesak eta kostoak kobratuko zaizkie ordaindu gabeko erreziboek.

# Sukalda Ritza eta irratia Taile RRAK

Izena emateko epea irailaren 21etik 25era



*Norentzat*

LHko 5. eta 6. mailakoentzat

*Datak*

Urriak 3-10-17-31

Azaroak 7-14-21-28

*Ordutegia*

16:00 -19:00

*Prezioa*

3.000 pta.

*Izena emateko*

Elgoibarko Izarra K.E.

Ubitarte 4, behea

Tel: 943 74 16 26

PLAZA  
MUÇATUAK!



ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarrako  
Atxuxiamaika Begirale Taldea

LAGUNTZAILEA:  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaularitza



# La runba tero

## ATXUTXIAMAIAKarekin

*Datak (8 larunbat)*

Urriak 3-10-17-31

Azaroak 7-14-21-28

*Prezioa*

2.500 pta.

*Ekintzak*

Jolasak  
Irteerak  
Eskulanak ....

*Ordutegia*

9:30 - 12:30

LHko  
1.-2. mailak



ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarrako  
Atxuxiamaika Begirale Taldea

LAGUNTZAILEAK  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaularitza



Izena emateko Elgoibarko Izarra K.E. Ubitarte 4, behea Tel: 943 74 16 26 Irailaren 21etik 25era

# ARRREN

LIko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 47. GEHIGARRIA



**A**rgazki hau Mendaroko San Jose ikastolako 1. eta 2. mailako haurrek maitatzean egin zuten irteera pedagogikoari dagokio. Helburua, kostaldeko eta barnealdeko berezitasunak ikustea zen. Lehenik eta behin Getarian izan ziren. Han,

portua ikusi ondoren, Arratoira igo eta bertan bazkaldu zuten. Arratsaldean, Lasturko "Goikoetxe" baserria bisitatu zuten. Aipatu baserrian gazta egiten eta artilea nola landu eta tintatzen den ikusteko aukera izan zuten. Horrela bukatu zen egun pasa eder hura.

## *Txistea*

Txerria erosi duela kontatzen dio gizon batek bere lagun bati, bere logelan daukela eta ohe azpian lo egiten duela txerriak.

– Eta kiratsarekin zer? – galdetzen dio lagunak txundituta.

– Ah, niri bost axola! Hor konpon txerria! Ohituko duk.



## Jakitunen eskutik

### Haurren bizitzako lehen eguna eskolan

Ume guztiei, lehenago edo beranduago, eskolan hasteko garaia iristen zaie eta oso garrantzitsua da gurasoek jarrera baikorra azaltzea haurren aurrean, hauengan konfidantza eta ziurtasuna sortzeko. Azken batean, haurren lehen etapan mundua oso sinplea da eta, esaterako, amak beldurra agertzen badu, haurrak beldurra sentituko du.

Lehen eguna iristean zenbait puntu garbi izan behar dituzte gurasoek:

- Haurrak nahi badu etxetik jolas bat eraman dezake. Horrela, etxearekiko lotura sentituko du.

- Zentro gehienetan aukera dago lehen egunean gurasoak gelatik kanpo geratzeko. Horrela, umeak noizean behin kanpora ateratzen dira eta gurasoa han dagoela ikusten dute.

- Azkenik, haurren bila joatean poza adierazi behar zaie umeei eta egunean zehar zer egin duten galdetu. Era berean, irakaslearekin harreman ona dagoela erakutsi behar dute gurasoek, haurrak ikus dezan konfidantzazko pertsona dela.

Argi izan behar da haur bakoitzak modu batera bizi dituela eskolako lehen egunak. Horregatik, bai gurasoak eta baita irakasleak ere, ume bakoitzaren beharretara egokitu behar dira eta, batez ere lehen urteetan, hezkuntza pertsonalizatua izan behar da. Umeak ondo jan eta lo egiten duela da eskolara ohitzen ari denaren seinalerik garbiena.

Haurrak 0 eta 3 urte bitartean dituen garaian hiru helburu nagusi daude:

- Gorputzaren kontrola: irakaslearen keinu eta kantuak jarraituz haurrak burua eta oinak ukitzen eta eskuak erakusten ikasiko du, ahoa, begiak eta abar identifikatuz. Poliki-poliki bere identitatea ezagutuko du, espresioaren gaitasunak eta mugak.

- Hizkuntzaren hobekuntza: hasieratik irakasleek haurrei euren behar eta nahiak hizkuntzaren bitartez azaltzen irakatsiko diete.

- Sozializazioa: lagun berriak egingo dituzte, aniztasuna, txanda eta partehartzea bezalako baloreak ezagutuz eta barneratuz.

Lehen etapa honetan, baita ere, jakinmina piztuko zaie, garbitasunaren oinarritzko arauak ikasiko dituzte, ipuinak azaldu eta entzuteko kontzentrazioa...

3 eta 6 urte bitartean aurreko guztia garatzeaz gain, irakurtzen eta idazten hasiko dira, zenbatzen ikasiko dute, egunak, asteak, hilabeteak, urtarok ikasiko dituzte eta psikomotrizitatea landuko dute arkatzak, pintzelak eta bestelakoak erabiliz marrazkiak eginez.

**Iturria:** *Creceer* aldizkaria

## Zer iritzi daukazu ..... irakasle .....ei buruz?



Batzuk txintxoak dira eta asko erakusten didate.

Pozik nago andereñoekin.

ANTXON SEGUNDO 7 urte



Onak dira eta batzuetan txarrak ere bai. Lan asko ematen digute.

MAITE OLAZABAL 9 urte.



Batzuetan bronka handia botatzen dute eta batzuei pelota egiten diete.

AMAIA ZABALETA 10 urte



RUBEN MAN-  
CEBO  
11 urte

- 1- Marte.
- 2- Bai, ze ez jata gustatzen goiz esnatzia eta ikastia.
- 3- Futbola.
- 4- Pamela Anderson, aktore ona eta guapia dalako.
- 5- Eskolan bialdutako lanak eitxiak.
- 6- Jendia fastidixau, batez ere irakasliak, eta nesken komunera sartu.
- 7- Ez jata gustatzen udazkena, nahixo dot uda opporak daudelako.
- 8- Txanpon zaharrak

## Galde debalde

- 1- Zein planeta ezagutu nahi zenuke?
- 2- Kosta egiten al zaizu eskolan hastera?
- 3- Zein duzu jolasik gustukoena?
- 4- Nor ezagutu nahi zenuke?
- 5- Zerk aspertzen zaitu?
- 6- Zer egingo zenuke ikustezina bazina?
- 7- Zer da udazkenetik gehien gustatzen zaizuna?
- 8- Zerbait kolekzionatzen al duzu?



NEREA  
ZUBIRREMENTERIA  
6 urte

- 1- Ilargixa.
- 2- Ez, nahixao dot eskolara etortzia opporretan egotia baino.
- 3- Kulunpioak.
- 4- Takolo pailazoa.
- 5- Pianua jotziak.
- 6- Ez jatan gustauko ikustezina izatia.
- 7- Zuhaitzen eta mendixan koloria.
- 8- Zer da kolekzionatzia?


## Zer da *muxua*.....?

GORKA LIZARRALDE 6 URTE



Pa bat ezpaineekin ematen dena ezpainen eta aurpegian. Maitxe dogunari emateko.

ANDONI LOIOLA 8 URTE



Maitatzea.

MARIA GARATE 5 URTE



Ezpaineekin pa ematia amatxori, aitatxori eta ltxasori.

EKHI UNANUE 9 URTE



Ezpaineekin ematen da aurpegian edo beste leku batean.

LEIRE MENDIKUTE 8 URTE



Maiteminduta daudenean elkar maite dutela adierazten du.

ION LAZKANO 9 URTE



Nobiari ematen zaio edo familiako bati urrutitik datorrenean.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da aktore hau?



## 2. Zer galdetu diegu?




**MARIA ETXABE**  
11 urte

"Alaitz eta Mainer. Badakat diskua eta gehixen gustatzen jatan abestixa 'Txanpon baten truke' da. Musikia entzun eta dantza asko ingo naban".

**ASEL UNANUE**  
7 urte

"Backstreet boys" taldea. Nere anaixak badaka diskua eta batzutan entzuten dot baina gero eta gitxio, ze abestixak badakizkitx eta piskat aspertu in naiz."



## 3. Nondik iritsiko da hondartzara?



## 4. Asmakizunak

— Buruan jotzen naute erosi eta gero horrela geratzen naiz betirako preso.

— Bat da luzeena bi txikiagoak bat txiki eta mehea bestea lodiagoa.

— Umetan zuri gaztaroan gorri zahartzaroan beltz. Igerri ezetz!



*Xabier Elizburuk, 26 urteko elgoibartarrak, azken bost urteak Donostiako seminarioan pasa ditu. Diakono izendatu dute aurten eta datorren urtean apaiza izango da. Bien bitartean, Bartzelonara doa Teologiako lizentziatura atera nahi baitu. Gaur egun hain urriak izanik apaiz izatea erabakitzen dutenak, gure artekarri dugu Xabier bere bokazioaren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.*

XABIER ELIZBURUK

# “Fedea, bizitzeko estilo bat da”

**– Zer da diakono bat?**

- Seminarioan egon eta gero eta apaiz egin aurretik, elizak agintzen daban pres-taketa bat. Urtebeteko praktikak dia eta epe horretan parrokia bat barrutik eza-gutzeko aukera daukazu.

**– Gaur egun oso gazte gu-txik aukeratzen dute apaiz izatea. Zerk bultzatu zintuen?**

- Norberak bere bizitzan proiektu bat in bihar dau eta proiektu hori itxeko orduan bakoitzan bizitzan gauza desberdinak nahasten dia. Nere inguruan erlijua eta sinesmena gauza garrantzi-tsuak dia. Gainera, ez da egun batetik bestera hartzen dan erabaki bat.

**– Zalantzak zein erakoak izaten dira?**

- Gaur egun apaiz izateko benetako bokaziuia euki bihar da. Bokazio hori eliza honetan konkretatzen da eta eliza honek kondizio asko jartzen ditxu. Gauza batzu-

kin ados egon zaitezke eta beste batzukin ez. Hortik datoz zalantzak eta baita ere bizitzak aukera asko eskaintzen dituelako. Halere, aukera bat egiten den guztietan beste aukera bat baztertzen da, kontua da baztertutako horiek ongi betetzen asmatzea.

**– Zein da gaur egungo gi-zartean apaiz baten funtzioa?**

- Momentu honetan kristau izatia erabakitzen daban pertsona batek balore konkretuak ditu. Halere, puntu horretara heltzea ez da erraza eta gure funtziua da herri mailan sinismen hori sakontzia. Guk sinesten dogu fede horretan benetako zoriontasuna topa daitekeela.

**– Zer da fedea?**

- Bizitzeko estilo bat, balore konkretuetan oinarritzen dana eta bizitzari benetako zentzua eman die-zaiokena.

**– Zein balore da zure ustez garrantzitsuena?**

- Nere ustez bi daude. Bat, danen arteko berdintasuna eta bestia berdintasun hori egon dadila justizia baten oinarrituta.

**– Esaidazu gustuko duzun Bibliako pasarte bat.**

- “El hijo pródigo” deitzen dana asko gustatzen jata. Kontatzen dau nola bi seme zituen aita bati seme batek heredentziako dirua eskatu zion eta gero etxetik alde ein zaban. Zenbait urtez oparo bizi izan zan dirua gastatu zaban arte. Orduan, aitaren etxera bueltatzia erabaki zaban lanian aritze-ko. Aitak eskuzabalik jaso zaban semia eta jai batez in zion ongiatorrixa. Beste semia, etxean, aitaren onduan leial geratu zana haserratu in zan. Zer esan nahi daban? Azken batian, aitarentzat bere seme guztiak, edozer itxen dabela ere, berdinak diala eta guztiak behar ditxula onduan.

**– Beldurra al diozu heriotzari?**


- Zela ez dakigun zer dan... Bildurra ez diot baina ez dot nahi hiltzerik, nahiz eta gero beste zerbait egon-go dala sinestu.

**– Apaizok abantaila bat duzue: langabeziarik ez.**

- Momentuz bai, baina hemendik urte batzutara batek daki! Elizak hustutzen ari dia eta igual ez da egongo dirurik apaiz danak mantentzeko eta orduan, nahiz eta apaiz batzuk liberatuta egon, besteek aparte lanen bat egin beharko dute.

**– Zer izan nahi zenuke apaiza izango ez bazina?**

- Seminarioan sartu aurretik erraminta makinaren munduan ibili nitzan eta gustatzen jata.



## ABUZTUAN

## ●●● JAIOTAKOAK ●●●

- Ivan Rogel Maroto  
(Abuztuak 6)
- Alexander Fernández Soto  
(Abuztuak 12)
- Ander Zapata Toledano  
(Abuztuak 13)
- Irene Leal Rico (Abuztuak 16)
- Gorka Montañez Coronado  
(Abuztuak 20)
- Unai Sanz Zengotita  
(Abuztuak 25)

## ●●● EZKONDUTAKOAK ●●●

- Francisco Pérez Aba eta  
M<sup>a</sup> Yolanda Viñaras de Pablo  
(Abuztuak 1)
- Bonifacio Olabarria González  
eta Susana Durán  
Agirregomezkorta  
(Abuztuak 1)

## ●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Juana Alzibar Aretxuluaga,  
84 urte (Abuztuak 16)
- Enrike Zubiaurre Barrenetxea,  
55 urte (Abuztuak 30)

## Josefa Barrenetxea Larrañaga

(1895-1974)



- 1895eko maiatzaren 1ean jaio zen Muxillo baserrian. 4 anai-arrebaren artetik gazteena zen.
- Eskolan ikasteko aukerarik gabe, neskak zela etxeko eta baratze lanetan ematen zuen denbora, familiari meriendak eta bazkariak sorora eramanez.
- Gaztetatik loreak eta larrosak hazteko zaretasuna zuen, baita oilaskoak ere. Arropa josten ere bazekien.
- Neska kuadrila ederrarekin San Lorentzora eta Kurutzetara joaten ziren jaietan. Auzoko jaiak bereziki gustukoak zituen.
- Muxillo baserriak oihartzun handia zuen artalde ona zeukalako eta gazta hobeak egiten zituelako.
- Gaztea zela Eibarrera joan behar izan zuen zerbitzatzera. Geroago Elgoibarren bertan jarraitu zuen zeregin berean.
- 25 urte bete zituen egunean, 1920ko maiatzaren 1ean hain zuzen, Telesforo Zabaletarekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Lehenengo semea Eibarren bizi den Julen Zabaleta marrazkilaria da.
- Josefa kalean bizi izan zenean ere urte askotan eduki zuen baratza. Lan mordoak eginez barazki ederrak jasotzen zituen. Oilaskoak eta txerriak ere hazten zituen.
- Beti izan zen langile amorratua, atsegina, hizlaria eta familia giro handikoa. Emakume zintzo hau sinesmen handikoa zen. Pasatzea gogoko zuen eta herriko ohitura zaharren aldekoa. Euskal Herriko kantu eta dantzak asko gustatzen zitzaizkion.
- 'Josefa Muxillo' goitizenez ezagutzen zuen jendeak.
- Kasta gogorreko emakume hau 1974ko martxoaren 30ean hil zen 79 urterekin.

Juanito Gorostiza

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92



**Bukatu S. Coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 943 74 12 56 - (mugikorra) 909 53 23 83



**A**

ageritzen...  
tik, Arjentinara joan ziren eta topo egin zuten... tan. Martin

erretrotua  
ekarri di-  
soa dau-  
1951eko  
ago, Bue-  
atina). Ez-  
**lartin Bi-**  
**Mujika,**  
**an Bilbao**  
din batega-  
tan. Martin

Bikondoa Sigman ari zen lanean eta Buenos Airesera joan zen lana zela eta. Gaur egun Buenos Airesen bizi da. Julian Mujika ere lan bila joan zen herrialde hartara. Markos Elosegi, berriz, itsasontzi batean zegoen lanean eta Arjentinan egin zuten geldialdia. Julian Bilbao ere marina merkantean zebilen. Bertan zeudela gaixotu egin zen eta hiri hartan geratu behar izan zuen sendatu arte. Azken hau, Arjentinako hegoaldean, Pampako Bolibar herrian bizi da gaur egun. Lau elgoibartar hauek topo egin zuten Buenos Airesen eta denboralditxo bat pasatu zuten elkarrekin eta esan digutenez, ondo baino hobeto ibili ziren.


**POL-POL**

**T A B E R N A**

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behea. ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## "Pilotuan eta kopilotuan artian konpenetrazio handixa bihar da"



### Xabier Bergaretxe

- **Adina: 25**
- **Istripurik izan al duzu?** Istripurik ez. Susto txikixak asko baina eskapada haundirik ez.
- **Bidaiatzeko garraiobidea?** Gasolina eta motorra dakan edozer.
- **Gogokoen duzun autoa?** Kalerako BMW M3 eta karrerarako Mitsubishi Evolución 5.
- **Zenbagarrean atera zenuen gidabaimena?** Lelenguan.

- **Auto lasterketan zabilta kopiloto bezala.** - Bai, Gari Ulazia piloto ibiltzen da eta neu kopiloto. Oin dala urtebete hasi gera asunto honekin.

- **Nolatan sartu zarete mundu honetan?** - Beti izan gera zaletuak, eta aurten animau ein gera. Lelengo ekipua edo egitura bat ein bihar izan gendunta gero lana banatu. Gari piloto eta neu kopiloto izatiaz aparte, mekanikuak eta asistentiak ere bihar dia. Baten anaixa dala, bestian laguna dala, hola osatu dou ekipua.

- **Rallyetan eta igoeretan hartzen duzue parte batez ere.** - Bai. Gainera bata ez daka bestiakin zerikusirik. Rallyxan 100-150 km. eitxen dia eta subidetan 5-7 km. Hauetan normalian manga bat entrenamendua izaten da eta beste bi manga ofizialak. Aurten zortzi bat subida ein ditzugu: erregionalian Arrate, Iturreta, Gorla, Urbasa, Jaizkibelen bi aldiz eta Urraki. Kanpuan Laredo inguruko 'La Bienaparecida'n egon gera, maila nazionalekoa.

- **Eta rallyak?** - Aurten gitxi: Lesaka, Irun, Azpeitia eta urrian lelengo astian 'Auto Nervión' dakagu. Gero eta gaizkixo dao rallyxen asuntua. Dirua gitxi dao, patrozinatzaileak topatzia regionalian gaitza dao baina ostian, Espainiako Federaziuak ganora gitxi daka. Bi lagun daoz eta harei ez jakue inporta urtian 10 rally ein edo bi. Soldatia kobrau eta kitto. Alcañizeko zirkuitua, adibidez, rallyak eitxeko da. Aurten, patrozinatzaileak eta dana lortuta zauanian, hasi zian esaten peligrasua zala eta gauza bat

eta bestia, eta azkenian ez zan ezer ein.

- **Kirol garestia aukeratu duzu.** - Bai, karua da. Konpetizio bakoitzian dana homologauta euki bihar dozu, motorra eta dana. Beldurgarri exijitzen digute. Urte hasieran lizentziak, karrera bakoitzian inskripziua,.. Patrozinatzaile euki badakau baina bigarren karrerarako dana gastazen dou. Askotan hobe da hiru subida eitxia rally bat baino, ze kotxiak askoz gehixo sufritzen dau rallyxan. Subidak bakarrik eitxen badixtu danian askoz gitxio gastatzen da.

- **Autoa ere erosi beharko da.** - Guk txatarra bat erosi gendun, R5 bat. Gero dana aldau bihar da: txasixa refoztzau, mekanikia hobetu, amortiguaziua,.., ixa kotxe berrixa. Desguazietan bigarren eskuko piezak lortuta, mekanikia guk eitxen... hola moldatu gera, baina bestela... Gure kotxia saltzen hasitxa 700.000 pta.n bueltan eskatu leike.

- **Zein da kopiloto baten zereginna?** - Rallyxetan bakarrik eoten da kopilotuan biharra ze subidak motzak dianez, pilotuak buruz ikasi leike bidia. Rallyxan, berriz, kopitoluak esaten dio pilotuari zer ein bihar daban. Horregatik konpenetraziua haundixa izan bihar da. Aurrez rekorridua eitxen dou eta notak hartzen ditzugu. Zenbat eta nota hobiak hartu, hobe, ahal danik topera juteko.

- **Jarraitzeko asmorik?** - Nahiko genduke, ze lelengo urtia pasau eta gero mejorixa haundixa igarri dou. Kotxia behintzat saldu ein bihar dou eta ikusiko dou datorren urtian zer gertatzen dan.

## KIROL ALBISTEAK

### ● **Mintxeta Atletismo Taldekoen entrenamenduak**

Mintxeta Atletismo Taldeko zuzendaritza batzordeak bidalitako oharrean adierazten denez, datorren astelehenean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan hasiko dira entrenamendu saioak. Era berean, atletismoa egitea gustuko duen edonork Mintxetan bertan jaso dezake behar adina argibide astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

### ● **Herri mailako ehiza txapelketa hilaren 26an**

La Uinón Ehiza eta arrantza Elkar-teak herri mailako ehiza txapelketa antolatu du datorren zapatarako, hilak 26. Faisaia ehizatuko da, ehiza txikiko modalitatean. Ehiztari bakoitzak epailea eraman beharko du derrigorrez. Izenak emateko gaueko 21:30etik 22:30era deitu Elkartera edo txapelketa egunean bertan, goizeko 8:00etan eman izena.

### EMAITZAK

#### Futbola

Lemona 1 - Haundi 0  
Elgoibar 0 - Retuerto 1 (L. N. jub.)  
Urnieta 6 - Elgoibar 0 (1. jub.)

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 19  
17:00 Haundi - Gernika  
Igandea, 20  
12:00 Elgoibar - S. D. Eibar (Kadeteak)  
16:30 Elgoibar - Munibe (L. N. jub.)

Futbola, 98/99 denboraldia

## Jubenilak, kadeteak eta neskak

*Pasa den astean Haundi taldearen berri eman genizuen. Oraingoan Club Deportivo Elkartearen baitan dauden beste talde batzuk aurkeztuko dizkizuegu. Hona hemen jubenilak, kadeteak eta nesken taldea.*



### *Liga Nazionaleko Jubenilak*

Atzean, ezkerretik eskumara: **Aitor Eizagirre** entrenatzailea, **Iban Eizagirre**, **Eneko Silva**, **Ignacio González**, **Ander Barrenetxea**, **Asier Arenal**, **Cristian Alvarez**, **Asier Mujika** eta **Aitor Juaristi**. Makurtuta: **Fran Huidobro**, **Andoni Mujika**, **Iñigo Gurrutxaga**, **Abel Hernández**, **Josu Gabilondo**, **Mitxel Santos**, **Ibai Etxabe** eta **Aitor Barrenetxea**.

Liga Nazional mailako jubenilek pasa den zapatuan jokatu zuten lehen partidua Retuertoren kontra. 0 eta 1 galdu zuten baina Aitor Eizagirre entrenatzailearen iritziz “normala da emaitza onik ez lortzea. Jubeniletan dagoen bigarren kategorian altuena da eta kontuan hartu behar da iazko taldetik 3 jokalarri baino ez direla geratzen. Gehienak erregionalean daude, batzuek Haundin ari dira, eta aurtengo taldea, ia oso-osorik, berria da”. Aurten erregionalean dauden jokalariek osatzen zuten taldeak lortu zuen iaz Liga Nazionalera igotzea. “Oraingo ekipoak iaz eskuratutako kategorian mantentzen nahikoa lan izango du. Lorpen handia izango litzateke mantentzea, baina jaitsiko bagina ere ez legoke txarto, Euskal Liga guretzako kategorian aproposagoa baita”. Aitor Eizagirrek urte asko daramatza entrenatzaile gisa. “Hasieran kadeteekin, gero erregionaleko ekipoarekin eta iaz, jubenilak entrenatzen hasi nintzen”.

### *Neskek*



Atzean, ezkerretik hasita: **Roberto García** entrenatzailea, **Itziar Arizmendi**, **Irene Elorza**, **Amaia Epelde**, **Ivana Ortueta**, **Miren Mujika**, **Amaia Barrenetxea**, **Oihana Chico**, **Nerea Iriondo**, **Ruth Gurrutxaga**, **Patricia Menor**, **Lorena Nabarro** eta **Alberto Hernández** entrenatzailea. Makurtuta: **Eva Rodriguez**, **Maidier Rejas**, **Monica García**, **Vanesa Ortueta**, **Itziar Gurrutxaga**, **Marta Díez**, **Leire Rodriguez**, **Mireia Huidobro**, **Laura Mujika**, **Miriam García** eta **Pakito Linares** ordezkarria. Hil honen 27an emango diote hasiera ligari. Aurten erregionalean mailan daude, iaz kategoriaz jaitsi baitziren. Alberto Hernández entrenatzailearen asmoa, “mailaz igotzen saiatzea da. Gure arteko giroa beti izan da oso ona eta aurten, ginera, guztiak sekulako ilusioarekin hasi dira”.

### *Kadeteak*



Atzean, ezkerretik hasita: **Xabat Molina**, **Elur Arrieta**, **Iñigo Leon**, **Gorka Panizo**, **Mikel Armendia**, **Unai Zulaika** entrenatzailea, **Gabriel**, **Gorka Zabala**, **Aranberri**, **Gurutz Quintano**, **Iker Martínez**, **Aritz Kruzelegi**, **Otero** eta **Xabi Alonso** laguntzailea. Makurtuta: **Javi Muñoz**, **David García**, **Josu**, **Ivan Martínez**, **Mikel Zafra**, **Bikentzi Urkiri**, **Asier Elustondo**, **Jon García**, **Gorka Atrio** eta **Asier Intxausti**.

Igandean jokatuko dute kadeteek ligako lehenengo partidua. Mintxetan izango da norgehiagoka eibartarren kontra. Unai Zulaika da entrenatzailea eta lehen urtea da entrenatzaile gisa aritzen dena. Aurtengo asmo nagusia lehenengo laupabosten artean sailkatzea da, “iaz bezala”. Ligaz aparte, Kopan ere hartuko dute parte. Iaz bigarren geratu ziren. “Ia aurten irabazten dogun!”.

## Arturo Andraderen hiru eskultura erosi ditu Udalak

Kultur Etxearen aurre aldean jarri dituzte

Udal Kultura Batzorde-  
tik jakinarazi digute-  
nez, Udalak Arturo  
Andrade eskultorearen hiru  
lan erosi ditu 1.000.000 pta.n.  
“Guerrero”, “Mujer” eta “Ca-  
beza” dira eskulturen izenbu-  
ruak. Kultur Etxearen bueltan  
daude kokatuta hirurak, ‘L’  
forman. Eskulturak erosteko  
asmoa Andradek egin zuen  
erakusketaren ostean sortu  
zen. Izan ere, elgoibartar ho-  
nek zenbait eskultura Kultur  
Etxearen kanpoko aldean jarri  
zituen ikusgai. “Jendearen ar-  
tean harrera ona izan zuen, es-  
kulturarak kalean bertan ikusi ahal izatea  
idea ona begitandu zitzaizen herritarrei  
eta askok pentsatu zuten betirako gera-  
tuko zirela bertan”. Ideia hau jaso eta  
Udal Kultura Batzordean aztertu ondo-



*Eskulturek harrizko oinarri fijoak dituzte. Hemendik  
aurrera kalean arteaz disfrutatu ahal izango dugu.*

ren, Gobernu Batzordeak begi  
onez ikusi zuen eskulturak erosteko proposa-  
mena. “Gainera, Udalak beti erosi izan  
ditu kuadroak eta positiboa iruditu zi-  
tzaigun eskulturak edukitzea gure on-

darean”. Andraderekin harre-  
manetan jarri eta prezioa eza-  
rri zuten, milioi 1 pta. Andra-  
dek berak esan digunez, “niri  
ere ilusioa egiten zidan nire  
eskulturak Elgoibarren jartze-  
ak. Normalean lan handiak  
enkarguzkoak izaten dira, bai-  
na kasu honetan erakusketa  
batek sortu du interesa, eta ho-  
ri oso zaila izaten da. Horre-  
gatik ilusio askoz handiagoa  
egin dit”. Hiru eskulturei har-  
rizko oinarria jarri die, “es-  
kultura bera eta oinarria batuz,  
irudi bakoitzak 500 eta 700 ki-  
lo bitarteko pisua dauka”.

Andradek Galizian saldu ditu bere  
lanak batez ere: Allarizen eta inguruko  
herri txiki batean eta Coruñan. Azken  
honetan enkarguzko lana egin zuen,  
‘Torre Hercules’ izenekoa.

## IBAI KIROL ELKARTEA



*Onain duzu aukera  
zatoz eta informazio zaituz*

### ZERBITZU ETA ORDUTEGI ZABALAGOA ESKAINTZEN DIZUGU

- ▲ **Mantenimenduko Gimnasia eta Aerobika:**  
astelehen, astearte, asteazken  
eta ostegunean (goizez eta arratsaldez)
- ▲ **Gimnasia Erritmikoa:**  
astearte eta ostegunean
- ▲ **Judoa:**  
astelehen, asteazken eta ostiralean  
(haur eta helduentzat)
- ▲ **Taekwondo:** astearte eta ostegunean
- ▲ **Wing-Tsun:** astearte eta ostegunean

### IKASTARO BERRIAK

- ▲ Haurrentzako aerobika
- ▲ Defentsa pertsonala

Santa Ana, 46 · Tel: 943 74 07 93

**Bulego orduak: 18:30etik 22:00etara**

# Nerea Larrañaga

IKASLEA - 20 URTE



**1 - Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza?** - Bai, batez ere 20 urte dituzunean eta gaztaroa topera disfrutatzen ari zarenean. Elgoibar gustatzen zaizkizue bizitzeko, uste dot hobiak diala herri txikixak hirixak baino.

**2 - Eutanasia nuke familiak dot baitez.** Oso fritten egongo lukeuk ez balu,

**3 - Hil eta ;** pentsatzen dot l nisten ezer dau eta hil itxen ger

**4 - Lehene gero besteak.** guztiak berdin eta edozer egit duan kontuan i har ditugu beste

**5 - Nori kor dizkiozu ar:** - Nere nobixua da nere lagunik

**6 - Zein da : zitzako anbizio bizioa?** - Anbiziozimu simple saixa eukitzia. Erroproia erostera

**7- Sineste duzu politik Ba al duzu bo emateko asirik?** - Ez, bai egixa esan e diot kaso gehi xegi itxen. U dot danon esku

dala botua ematia baina ez dakit botauko doten eta are gitxio zeini eman go dioten botua.

**8 - Noiz joan zinen azkenengo al diz manifestazio batera?** - Intsumisuan aldeko manifestazioen bat izango zan, institutuan.

**11 - Joaten al zara Gaztetzera?** - Jun izan naiz eta oso ondo dao. Bihar zan holako zeozer, gero bakoitzak aukeratzan dau ze ambiente gustatzen jakon.

**12 - Gurasoek asko sufritzen al du zurekin?** - Ez dot uste, txintxua naiz.

**13 - Zer da gurasoengandik ien gustatzen zaizuna? Eta gun?** - Gehixen beti eman izan diela atasuna erabakixak hartzeko orduan ez dot ikusten ezer txarra dakenik.

**14 - Laguntzen al duzu etxekoetan?** - Oporretan nauanian ohia n dot, aspiradoria pasau, erroproia zilikatu eta batu... Baina ikasten anian ixa ezer ere ez.

**15 - Ondo pasa daiteke alkoholik in gabe?** - Bai. Izaera lotsatixa bazu alkoholak lagundu itxen dau na bestela ondo pasau laike.

**16 - Irakurri duzn azken liburu?** - "Alguien voló sobre el nido del o".

**17 - Sexua maitasunik gabe ala itasuna sexurik gabe?** - Bat aukerokotan, maitasuna sexurik gabe. itasuna da inportantiena.

**18 - Birjinitatea traba ala bertur?** - Ez bata eta ez bestia. Bere montua daka, ez da ezkondu arte gorbiar baina ezta ere prisiakin bila bihar.

**19 - Homosexual batek maitetuela esango balizu?** - Adiskidetaa eskainiko nioke baina nere tentziak beste batzuk diazela azalduz.

**20 - Sinesten al duzu betiko maituean?** - Bai. Nere gurasuak oso tiak ziala hasi zian eta ondiok oso lo ikusten ditzut. Kontua, pertsona kixa topatzia da.



**Apr obereatu udakia gida baimena ateratzeko**

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

**bena ematerakian %10eko beharpena gabe txartelarekin**

**INTERESEKO  
TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbulategia:  
Larrialdiak . . . . . 943 461111  
Txanda hartzeko . . . 943 743354  
Planning-a . . . . . 943 742950  
Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385  
D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622  
Gurutze Gorria . . . 943 743864  
Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264  
Odol Emaileak . . . 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak . . . . 943 740442  
PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
Taxi geltokia . . . . . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua . . . . 943 744366  
Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415  
Kultura Zerbitzua . . . 943 742158  
Mendaroko Udala . . . . 943 756100  
Ongizate zerbitzua . . . . 943741008  
Udaletxea . . . . . 943 741050  
Udaltzaingoa . . . . . 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . . . . . 943 741626  
Kiroldegia . . . . . 943 744415  
Kontsumo Bulegoa . . . . 943 743088  
Liburutegia . . . . . 943 743525  
Musika Eskola . . . . . 943 742145  
Mintxeta . . . . . 943 744315  
Parrokia . . . . . 943 740842  
Postetxea . . . . . 943 741547  
Gaztetxea . . . . . 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296  
Zaharren Biltokia . . . . 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . . 943 74 21 41  
HHI (EPA) . . . . . 943 74 08 80  
Herri Eskola . . . . . 943 74 08 79  
I.M.H. . . . . 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiturre . . . . . 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80  
Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea . . . . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 943 74 41 12  
El Diario Vasco . . . . . 943 74 40 73  
El Correo Español . . . 943 74 10 82  
Egin . . . . . 943 10 84 21  
Zazpiki irratia . . . 943 74 34 74

**18**

ostirala

**20:30**  
**'ERREALZALEEN**  
**PEÑA'ren BILERA**  
Kultur Etxean

**22:15 ZINEA**  
"La ciudad de Los Angeles"

**19**

larunbata

**8:00 ARAOTZ-**  
**URKULUra MENDI**  
**TRABESIA**  
Irteera Plaza Handian  
Antolatzailea: Morkaiko M. E.

**12:00 ZAZPIKIREN**  
**BILERA**  
Ganbaran

**19:30-22:15 ZINEA**  
"La ciudad de Los Angeles"

**22:00 KONTZERTUA**  
"Nahikoa da" eta  
"Hi, aitu zak"  
Gaztetxean

**20**

igandea

**16:30-19:30-22:15 ZINEA**  
"La ciudad de Los Angeles"

**21**

astelehena

**20:00 'BAI**  
**EUSKARARI'**  
**KANPAINAREN**  
**AURKEZPENA**  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

**22:15 ZINEA**  
"La ciudad de Los Angeles"

**22**

asteartea

**20:00 EGIN**  
**BERRIAREN**  
**AURKEZPENA**  
Kimetz Elkartearen

**25**

ostirala

**19:00 MARGO**  
**ERAKUSKETA**  
Egileak: Mari Carmen Aguado eta Mila Madina  
Kultur Etxean  
Urriaren 11ra arte

**22:15 ZINEA**  
"Seis días y siete noches"

**ZINEA**



**Zuzendaria: Brad Silberling.**  
**Antzezleak: Nicolas Cage,**  
**Meg Ryan, Dennis Franz.**

**La ciudad de Los Angeles**

Seth, (Nicolas Cage) zerutik lurrera zuzenean iritsi berri den aingerua da. Los Angeles hirira heltzen da eta bertan bihotzeko gaitzetan aditua den zirujano bat ezagutzen du (Meg Ryan). Zirujanoak ez du gertaera metafisikoetan sinesen baina hala ere, bien artean maitasun sentimentua pizten da. Pelikula honek sinesmenari eta maitasunari buruzko istorioa planteatzen du.



## ● Margo erakusketa

Datorren ostiralean hasi, hilak 25, eta urriaren 11ra bitartean, Mila Madinaren eta Mari Carmen



Aguadoren margoak ikusgai izango dira Kultur Etxeko erakusgelan. Loreak, arbolak, bodegoiak eta antzeko objektuak dira bi margolari hauek koadroetan azaltzen dituztenak, beti ere euren ikuspegi pertsonaletik. Hilaren 25ean, iluntzeko 19:00etan irekiko da erakusketa.

## ● 'Errealzaleen Peña' osatzeko deialdia

Datorren ostiralean, hilak 25, Elgoibarren 'Errealzaleen Peña' sortzeko asmotan dabilzanek bilera egingo dute iluntzeko 20:30ean Kultur Etxean. Peñako kidea izan nahi duenari edo ideiak proposatu nahi dituen guztiari joateko gonbita luzatu nahi die bultzatzaileek. Peña honetan izena eman nahi duenak Aldapa, Aterpe, Urkiola eta Lanbroa tabernetan egin dezake.

## ● EGIN egunkari berriaren aurkezpena

Datorren asteartean, hilak 22, EGIN egunkariko batzordeko zenbait kide Kimetz Elkartean izango dira proiektu berriaren nondik norakoak azaltzeko. Izan ere, urriaren proiektu hau gauzatzeko diru-bilketa kanpainari ekingo diote eta beraz, herriz herri proiektua aurkezten ari dira. Saioa iluntzeko 20:00etan hasiko da.

## ● XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari

Euskararen Gizarteko Erakundearen Kontseiluak udazkenerako prestatuta daukan kanpainaren aurkezpena egingo du irailaren 21ean, astelehena, Kultur Etxean, arratsaldeko 20:00etan hasita. Kanpainaren helburua euskal gizarteak, orain dela 20 urte egin zuen bezala, BAI EUSKARARI esatea da, euskararen normalizazio-bidean aurrera egiteko indarrak agertaraziz, mende berriako akordioa martxan jartzeko. Kanpainaren aurkezpena eskualdeko ikastola, ikastetxe, euskaltegi, euskara-elkarte eta euskaltzale guztiak daude gonbidatuta.

## ● Lizarrako bi talde Gaztetxean

Gazte Asanbladak antolatuta, bihar, hilak 20, (larunbata), Lizarrako bi talderen kontzertua izango da Gaztetxean. Gaueko 22:00etan hasita, *Hi, aitu zak* eta *Nahikoa da* taldeek joko dute. Ez da sarrerarik kobratuko.

## ● Mendizaleen Eguna Besaiden

Domekan, hilak 20, Besaiden Mendizaleen Eguna ospatuko da. Autobusik ez da antolatu, beraz, autoetan egin beharko da joan-etorria. Egitaraua honako hau da: 11:00etan txalaparta; 11:30ean meza; 12:00etan Euskal Mendizaleen Federazioko lehendakariaren agurra eta amaitzeko, bertsolariak eta trikitilariak.

## T R A N D A R

### FARMAZIAK

	Egunez	Gaeuz
19	Yudego*	Escala
20	Yudego*	Escala
21	Yudego	Yudego
22	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
23	Zabaleta	Zabaleta
24	Yudego	Yudego
25	Zabaleta	Zabaleta *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

### OKINDEGIA

20 igandea Eizagirre

Edozein idatzi

**BarREN**era posta elektronikoz bidali nahi baduzu,  
hau da gure helbidea:

**barren@topagunea.jalgi.com**

**OHARRA:** Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)
- ◆ Sukalde montatzaileak behar dira. Esperientziarekin. ☎ 943 86 14 78
- ◆ Emakume bat behar dut etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 35 23 (gauetz)
- ◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita. ☎ 943 74 39 43 (gaueko 21:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Pertsona bat behar da arratsalde eta jaiegunetan taberna lan egiteko. ☎ 943 74 28 97/ 943 74 0867
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauez. ☎ 943 74 27 78 (Itziar)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 40 (Estibaliz)

## Etxebizitzak

- ◆ Logelak ditut alokatzeko. Ura-sandi kalean. ☎ 943 74 03 93 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana 8-2 zenbakian. Ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 eta 74 18 34.
- ◆ Apartamentua salgai Loredon. Altzariak ditu eta garaje itxia. Prezio interesgarria. ☎ 943 74 29 32
- ◆ Alokairuko etxean dagoen mutil batek laguna behar du konpartitzeko. ☎ 989 34 81 97 (gaueko 21:00etatik aurrera).
- ◆ Neska batek beste neska bat behar du alokairuko etxea konpartitzeko. ☎ 94 68 24 148
- ◆ San Bartolome 2 zenbakiko 4. pisuan dagoen 25 m<sup>2</sup>ko teilatupeko lokala salgai. 1.500.000 pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)
- ◆ Etxe bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 943 31 24 48

## Bestelakoak

- ◆ Bergaran 1948an jaiotako enafaria izango da irailaren 26an gaueko 21:30ean Lasa jatetxean. Aurretik meza izango da Santa Marina elizan. Afal ostein mariatxiekin dantzaldia izango da. Prezioa 8.500 pta. da eta **Kutxan** edo **Euskadiko Kutxako** zenbakian sartu behar da.
- ◆ Sehaska berria oparitzen da, zuriz tintatutako egurrezkoa. Seguritate baldintzak betetzen ditu. Koltxoirik gabe. ☎ 943 74 29 95
- ◆ Caritasek etxebizitza bat jatzeko denetik behar du. Premiazkoa da. Kotxesila bat ere behar da. ☎ 943 74 03 78/ 74 15 09/ 74 12 57
- ◆ Papparreko brotxea galdu dut. Erronbo forma dauka. Aurkitu duenak dei dezala ☎ 943 74 13 41ra eguerdian.
- ◆ Katu ar bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abarrek. ☎ 929 47 76 98
- ◆ Perikito berde bat galdu zait. Norbaitek topatu badu dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 08 10
- ◆ Hiru-Iturri inguruan bastoi bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala ☎ 943 74 41 28 telefonora (gauetz).

## Partikularrak

- ◆ LOGSE eta DBHko matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 08 09/ 943 20 27 82 (Marian, gauetz)
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 43 98 (Iñaki. Gauetz deitu)
- ◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 943 75 50 35 (Imanol)
- ◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 943 74 41 16/ 907 15 30 62

## Garajeak

- ◆ Garajea alokatzen da San Roke Sean. ☎ 943 74 11 61
- ◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ 943 74 17 01 (Aitor)
- ◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 943 74 12 04
- ◆ Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean. 5.000 pta. hileko. ☎ 943 74 00 70 (gauetz)
- ◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 943 75 51 77 (Tere)
- ◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. ☎ 943 74 26 94
- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 943 74 33 39

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ R5 Copa Turbo autoa salgai. SS 4072 Y ☎ 943 74 07 92 (Izaskun. Gauetz deitu)
- ◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. ☎ 943 19 21 28 (gauetz)
- ◆ Sukalde elektrikoak + butanozkoa saltzen dut. Altzairu inoxidableko plaka dauka. Thinsen marka. Nahiko berria. ☎ 943 74 03 37
- ◆ Citroen AX GT, SS AF saltzen dut. ☎ 943 74 20 32
- ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)
- ◆ Euskal artzai txakurrak saltzen ditut. 1998ko uztailean 21ean jaiok. ☎ 943 74 32 57 (gauetz deitu)
- ◆ **EROSI** ◆
- ◆ Trikititza bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahosetakoak. ☎ 943 75 61 83

## Agurrak

- ◆ Superzorionak **Ismene** eta **Andoniri** bihar ezkunduko direlako. Milaren partez.
- ◆ Zorionak **Nerea Villari** hilaren 16an 13 urte bete zituelako. Jessica, Leire P., Leire H., Sarai, Ainhoa, Alaitz, Maider, Miren eta Veroren partez.
- ◆ Zorionak amama **Doloresi** bere 64 urtebetetzean biloba Julen, Itsasne, Maitane eta Alaznareren partez.



- ◆ Mila zorion **supermega aitaxori** gaur, hila 18, urteak bete dituelako. Ainhoa eta Leirenen partez.

- ◆ Zorionak eta musu haundi bat **amama Lolitari** familia osoaren eta bereziki Mikelen partez



- ◆ Zorionak **Mikeli** bi urte bete dituelako. Familiaren partez, orain arte bezain maitagarri izaten jarrai dezala. Musu bat.



- ◆ Zorionak **amatxori** hilaren 16an urteak bete zituelako. Musu haundi bat Mikelen eta familia osoaren partez. Zorionak baita ere azterketen emaitzengatik.



- ◆ Zorionak **preziosa** zure urtebetzean familia osoaren partez. Musu handi bat.

# ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak

## AUTO-ESKOLA



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

# Euskaltegiak

# SAN MIGEL AUZOKO

## JAIAK

### IRAILAK 25, OSTIRALA

20:00etan

Kanpai jotze eta txafli gu jaurtiketa jaien hasiera iragarritz.

22:30ean

Dantza jaialdia,  
HARITZ TALDEAREKIN

Ondoren erromeria *Kiñu* taldearekin.

### IRAILAK 27, IGANDEA

11:00etan

Meza.

Ondoren, *Balzola anaiak* trikitilariak

12:00etan

Artzai txakurren erakusketa:

Mikel Garaiar, *Mendirekin*

Luis Garaiar, *Turborekin*

Migel Aizpuru, *Mendirekin*

Jon Osoro, *Pintxorekin*

Jose A. Arrillaga, *Txikirekin*

Pello Seguro, *Lagunekin*

17:00etan

Idi demak: *Soarte*, *Lopategi* eta *Madarixako Ezkerra*.

1. saria 125.000 pta. eta garaikurra. 2. saria 110.00 pta. eta garaikurra. 3. saria 100.000 pta. eta garaikurra.

22:00etan

Erromeria *Balzola* anaiekin

### IRAILAK 26, LARUNBATA

22:30etan

Bertsolariak: *Peñagarikano*, *Mendiluze*, *Euzkitze*, *Oihane Enbeita* eta *Irazu*.

Ondoren

Erromeria *Luhartz* taldearekin.

Goizaldeko 1:00etan bolo txapelketa:

1. saria Sthil motozerra.

2. saria 12.000 pta.

3. saria 8.000 pta.

4. saria 4.000 pta.

5. saria 2.000 pta. eta 6. saria ustekabea.

Auzoko lehenarentzat garaikurra.



### IRAILAK 29, ASTEARTEA SAN MIGEL Eguna

11:30ean

Meza Nagusia.

Ondoren,

*Ziarda* eta *Mañukorta* bertsolariak.

13:00etan

Auzoko bikoteen XV. pilota txapelketaren azken partidua.

22:00etan

Erromeria *Maixa* eta *Itziarrekin*.

Gauerdiko 24:00etan

Txekorraren zozketa.

